

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4580

EBAZPENA, 2012ko irailaren 25ekoa, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariarena, zeinen bidez ebatzi eta jakinarazten baita zer diru-laguntza emango zaizkien Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta toki-erakundeei, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan tokiko protokoloak egin ditzaten, Herrizaingoko sailburuaren 2012ko apirilaren 20ko Agindua betez.

Herrizaingoko sailburuaren 2012ko apirilaren 20ko Aginduarekin bat etorritik (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalantzako eta beste toki-erakunde batzuentzako diru-laguntzak arautu eta deitu dira, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan tokiko protokoloak egiteko), eta Epaimahai Kalifikatzailearen 2012ko irailaren 19ko bilerako proposamenak kontuan harturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren udal eta toki-erakundeei guztira laurogeita hamabi mila ehun eta berrogeita bat euro eta berrogeita hamabi zentimoko diru-laguntzak (92.141,52) ematea. Eranskin horretan zehazten da bakoitzari zenbateko diru-laguntza ematen zaion.

Bigarrena.– Zenbait udal eta toki-erakunderi diru-laguntza ukatzea, 2012ko apirilaren 20ko Aginduaren 4.2 artikuluan xedatutakoa ez betetzeagatik, ebazpen honen II. eranskinaren arabera.

Hirugarrena.– Zenbait udal eta toki-erakunderi diru-laguntza ukatzea, 2012ko apirilaren 20ko Aginduaren 3.3 artikuluan xedatutakoa ez betetzeagatik, ebazpen honen III. eranskinaren arabera.

Laugarrena.– IV. eranskinean zerrendatutako eskariak bertan behera utzitakotzat jotzea, dokumentazioa behar den epean eta moduan ez zuzentzeagatik.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2012ko irailaren 25a.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.

2012ko urriaren 17a, asteazkena

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK JASOKO DITUZTEN UDALAK ETA HERRI-ERAKUNDEAK, ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Esp. zk.	Udala	Proiektuaren izena	Ebazpen-proposamena
PRO-GI-08/12	Azkoitiako udala	Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan tokiko protokoloak egiteko	7.478,25
PRO-GI 15/12	Errenteriako udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretari buruzko diagnostikoa	11.250,00
PRO-GI 01/12	Bideberri Mankomunitatea	Biolentzi diagnostikoa eta atentzio eta interbentziarako protokoloa lantzeko proposamena	5.977,50
PRO- BI 17/12	Sestaoko udala	Propuesta para la elaboración de un diagnóstico participativo y estratégico.....	11.250,00
PRO-BI 16/12	Durangoko udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeen artapenerako eta koordinaziorako protokoloa	11.044,80
PRO-GI-09/12	Tolosako udala	Protocolo Local para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato y agresiones sexuales	12.786,45
PRO BI- 05/12	Busturiko udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasatzen dituzten emakumei laguntza hobea ematek	4.743,60
PRO-BI 10/12	Arratiako Mankomunitatea	"Genero-Indarkeriaren Biktimen Prebentzioa eta arreta hobetzeko koordinazio protokoloaren jarraipen estrategia"	3.300,00
PRO-BI 04/12	Erandioko udala	Proceso de Evaluación y seguimiento del protocolo para casos de violencia de género	5.640,92
PRO-BI 14/12	Bermeoko udala	Genero indarkeriari buruzko erakunde arteko jarduketa protokoloaren jarraipena	5.459,50
PRO-BI-06/12	Lekeitioko udala	Lekeition Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren arloan protokoloa	2.478,00
PRO-BI 02/h12	Leioako udala	Elaboración de Diagnóstico y 2.º protocolo para la mejora de la coordinación y atención a víctimas de violencia de género	4.770,00
PRO-GI 18/12	Zarauzko udala	Genero Indarkeriari buruzko protoloa berregitea	5.962,50
		Guztira	92.141,52

II. ERANSKINA

2012KO APIRILAREN 20KO AGINDUAREN 4.2 ARTIKULUAN XEDATUTAKOA EZ BETETZEAGATIK UDAL
ETA TOKI-ERAKUNDEEI UKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

PRO-BI-07/12	Gernika-Lumoko udala	Emakumeen aurkako indarkeria programa
PRO-A 03/12	Amurriko udala	Diagnóstico y Protocolo para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y violencia sexual

III. ERANSKINA

2012KO APIRILAREN 20KO AGINDUAREN 3.3 ARTIKULUAN XEDATUTAKOA EZ BETETZEAGATIK UDAL
ETA TOKI-ERAKUNDEEI UKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

PRO-BI 13/12	Igorreko udala	Igorreko Herrian indarkeria matxistaren inguruko atentzio eta interbentzioarako protokoloa
--------------	----------------	---

IV. ERANSKINA

ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA EZ AURKEZTEAGATIK BERTAN BEHERA UTZITAKOTZAT JOTZEN
DIREN ESKARIAK

PRO-BI 11/12	Lanestosako udala	Diagnóstico sobre violencia de género
PRO-BI 12/12	Alonsotegiko udala	Diagnóstico sobre violencia de género